



2014KO OTSAILAREN 27KO
OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamalauko otsailaren hogeita zazpian, iluntzeko zazpi eta erdietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes, Haizea Mendia Iztueta, Maialen Aldasoro Aranburu, Maria Aranzazu Bengoa Gorosabel, Urtzi Iruin Arruti, Patxi Albisu Estensoro, Ane Irastortza Izagirre, Felix Urkola Iriarte eta Juan Manuel Serna Portugal.

Inazio Estensoro Eskisabel eta Milagros Madrazo Rada zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onspenera aurkezten da 2014ko urtarrilaren 30ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- ZINEGOTZIAREN KARGU HARTZEA.-

Bilduko Andoitz Garmendia Zubeldiak zinegotzi kargua uztearen ondorioz, Hauteskunde Batzorde Nagusiari honen ordez zinegotzi izendatzea tokatzen denaren kredentziala eskatu zitzaion.

Hauteskunde Batzorde Nagusiak JOSEBA IMANOL ARAN BARANDIARAN Jaunaren kredentziala bidali du.

Hau honela, eta interesatua bertan dagoelarik, Alkateak, Joseba Imanol Aran Barandiarani zinegotzi karguaren jabetza ematen dio, aldeztatik legezko tramite guztiak bete ondoren.

III.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezaren Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretotik irten egiten da.



IV.- KANPANDEGIKO BIRIBILGUNE LANEN 14. OBRA-EGIAZTAGIRIA.-

21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-eko lanen obra zuzendaritza daraman Pedro Azkue ingeniariak, Pedro Izaskun arkitektoak eta Juan Murua arkitekto teknikoak lanen 14. obra-egiaztagiria luzatu dute. Lanen 14. obra-egiaztagiriaren zenbatekoa HAMABI MILA SEIEHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO ETA LAUROGEITA HAMALAU ZENTIMOtakoa (12.659,94 €) da. Lan hauek GORAIKI KANPANDEGI, A.E.B. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak obra-egiaztagiri hau aztertu eta bere oniritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, "21.1 B.U.aren -Kanpandegi gunea- Urbanizazio Proiektua - 1. fasea bidegurutzea eta zubiak"-ko lanen 14. obra-egiaztagiria onartzea erabakitzen du.

Une honetan Patxi Albisu zinegotzia aretora itzuli egiten da.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



(Handwritten signature in blue ink)